

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Euskaltegia (Basauri)****Basauriko Udal Euskaltegiaren diru-laguntza deialdia****1. Diru-laguntzaren helburua**

Ebazpen honen bidez 2025/2026 ikasturteko Udal Euskaltegiko ikasleek euskara ikasteko diru-laguntzetarako deialdia egiten da.

Deialdi honetako dirulaguntzak Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren arabera arautuko dira 150zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua 2024ko abuztuaren 6an, non ezartzen baitira Basauriko Udalak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten diru-laguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoan ere.

2. Onuradunak

Basaurin erroldatutako Udal Euskaltegiko ikasleak. Era berean, Galdakaon erroldatutakoak, beti ere errolda agiria aurkezten badute eta Galdakaoko Udal Euskaltegiak Basauriko ikasleei ematen dien proportzio berean eta gehienez Basaurikoak ematen duen neurrian.

3. Aurrekontuko kreditua

— Diru atala: 26 15 3352 48005.

— Dagokion kreditua: 3.000 euro.

Deialdi honetan agertzen den diru kopurua handitu ahal izango da, behar den aurrekontu aldaketa onartu ondoren eta diru-laguntzak emateko akordioa baino lehenago, aurrekontu kreditu erabilgarria handitzen bada.

4. Udal Euskaltegiko diru-laguntzak

Ikasleari ebaluazio bakoitzari dagokion matrikularen %60 ordainduko zaio baldin eta gutxienez eskola orduen %90 jaso eta azken errenta aitorpenean ondorengo taulan agertzen direnak baino diru sarrera handiagoak ez baditu:

— Kide 1eko familiak: 15.567 euro.

— 2 kideko familiak: 26.573 euro.

— 3 kideko familiak: 36.070 euro.

— 4 kideko familiak: 42.836 euro.

— 5 kideko familiak: 47.878 euro.

— 6 kideko familiak: 51.685 euro.

— 7 kideko familiak: 55.451 euro.

— 8 kideko familiak: 59.199 euro.

3.740 euro gehituko dira beste kide konputagarri bakoitzeko.

Eskabideen aurkezpena

Epea: oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 10 egun baliodun; ikaslea oinarriak argitaratu ostean matrikulatzen bada euskaltegian, matrikulatu ondorengo 10 egun baliodunen barruan.

Agiriak aurkeztea: eskatzaileak agiri hauek bulegoan aurkeztu beharko ditu:

1. Dirulaguntza-eskabidearen inprimakia.
2. Ikaslearen NAREN edo baliokidearen fotokopia.
3. Familiaren errolda-agiria.



4. Familia-unitateko kide guztien Errenta Aitorpen oso(ar)en fotokopia(k). Kideren batek Errenta Aitorpena egin ezean, Foru Aldundiak luzatutako agiria aurkeztu beharko da, zeinetan errenta-aitorpena aurkeztu ez duela egiaztatzen den.

Zehaztapenak

Beren enpresa edo erakundeen aldetik helburu berberaz diru-laguntzaren bat hartzen dutenek, eta laguntza hori prezioaren %100 baino handiagoa bada, ez dute Udal Euskaltegiaren laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Ikasleak Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin dituen betebeharrak egunean izan beharko ditu.

Udal Euskaltegiak ikastaroaren amaieran aztertuko ditu ikasleen asistentzia eta aprobetxamendua ebaluazio bakoitzeko; ondoren ikasleek eurek emandako kontu zenbakian egingo zaie ordainketa hala badagokie, zuzendariak proposatu eta lehendakariak onartu ondoren.

Diru-laguntzak emateko akordioa ikastaroaren amaieran zehaztuko da.

Basaurin, 2026ko urtarrilaren 18an. — Udal Euskaltegiko Lehendakaria, María Fernández Morán



ERANSKINA / ANEXO

DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA / SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

Izen-abizenak Nombre y apellidos				
NAN DNI		Helbidea Dirección		
Herria Localidad		P.K. C.P.		Telefono Teléfono
Ordezkaría (tutorea adingabeen kasuan) / Representante (tutor en caso de menores)				
Izen-abizenak Nombre y apellidos				
NAN DNI				
Banketxeko datuak / Datos bancarios				
Kontuaren jabea Titular cuenta				
IBAN	Erakundea Entidad	Bulegoa Oficina	KZ DC	Kontu-zenbakia Número de cuenta
E	S			

ERANTZUKIZUNAREN AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluekin eta hurrengoekin, zeinak diru-laguntzen araudia onartzen duen, eta Aurrekontua Egikaritzeko Arauaren IV. Eranskinarekin bat eginez, zera

A efectos de lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones, y de conformidad con los artículos 22 y siguientes del Real Decreto 887/2006 del 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones y con el Anexo IV de la Norma de Ejecución Presupuestaria.

AITORTZEN DUT / DECLARO

- Egunean ditudala Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin ditudan betebeharrak.
- Ez daukadala onuradun izateko debekurik.
- Ez dudala xede bera duen bestelako laguntzarik jaso, beste erakunde publiko edo pribatutan.

- Que me hallo al corriente de mis obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- Que no estoy inmerso en ninguna de las prohibiciones para obtener las condiciones de beneficiario.
- Que no he percibido ninguna otra ayuda con el mismo objeto en ningún ente público o privado.

Eta hala adierazten dut, bakar-bakarrik, egiaztatgiri honen xede diren ondorioetarako.

Lo cual declaro a los efectos exclusivos para los que se expide.

Basauri(n).....

Sinadura / Firma

Ikaslea edo Ordezkaría

Dokumentu honetan jasotako datu pertsonalak interesdunaren baime-narekin jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Basauri-ko Udal Euskaltegiaren Informazio Sistemari sartuko dira. Datu horiek udal-kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan. Datuak Babes-teko Erregelamendu Orokorra. (2016/679 Erregelamendu, Europako Parlamentuarena, eta Kontseiluarena 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Euskaltegi Bulegoan.

Los datos personales contenidos en el presente documento han sido recogidos bajo el consentimiento de la persona interesada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Euskaltegi Municipal de Basauri. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos Personales y garantía de los derechos digitales. Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE). Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de la Oficina del Euskaltegi.